

XAKEA PRAKTIKATZEN DUTEN UMEAK ZERGATIK HOBETZEN DUTE **BEREN ERRENDIMENDU AKADEMIKOA**

Xakea praktikatzeak umeen errendimendu akademikoan hobekuntza dakarrela zientifikoki probatua dago, eta honen bitartez intelgentzia garatzen dela ere.

Baina honen zergatia era errazean argituko dugu, pentsa dezagun **umeak** ikasterako orduan **nola ikasten duten**. Aurrak eskolako irakasgaiak ikasterako orduan, **gelan azaldutakotik eta etxean ikasten dutenetik ikasten dute**. Argi dago edukazioa eta ikaskuntza beste iturri batzotatik datorrela ere, bere senditik zuzenean datorrena bezala edo beren bizipenetatik datorrena bezala baina hau ez da gaurko gaia...baizik nola errendimendu akademikoan hobetzen laguntzen duen:

Xakeak arreta eta kontzentrazioa hobetzen du, eta honek eskolako ikasketetan lagunduko du. Irakasleak gaiak argitzen dituenean ikasle batzuk distrakzioa normala da, baina xakea praktikatzen duten umei hau gertatzea zailagoa da, beren kontzentrazioa lantzen ohituak daudelako.

Xakea praktikatzen duten umeak **gelan ikasitakoa errazago gogoratzen dute**, ez da sekretua xakeak memoria trebatzen eta hobetzen duela.

Xakeak **giza erlazioetan laguntzen du**, beraz praktikatzen duten umeak **eskola inguruan hobetu giroa dira**.

Xakea ikasten hasten gerenean kontzeptu estrategiko asko barneratzen ditugu bizitzan erabiliko ditugunak, eta **ikasten duguna errazago antolatu eta egituratuko** dugu.

Baina esan dugun bezala irakasgaiak ikasterako orduan ez da soilik gelan ikasitakotik mamitzen baita ere etxean lantzen dutenetik ere:

Aurretik esandakoa noski etxerako ere balio du eta xakean praktikatzen dutenak etekin hobea aterako diote esandakoari...Baina badago faktore bat gutxitan esaten dena eta **xakeak irakurritakoaren ulermena hobetzen du** (Miguel Angel Quirosen ikerketa, Capakhine lehen alea) eta beraz **etekin handiagoa** ateratzen dute **etxean apunte, dokumentu edo liburuetan** egiten dutenetik ere.

Beraz xakearen abantailak asko dira, memoria, kontzentrazioa, arreta, antolaketa eta egituraketa, planifikazioa, irakurketaren ulermena, logika, giza harremanak, erabakiak hartzea, pentsaera estrategikoa, gaitzitzeko ahalmena akatsekin ikastea eta umeentzat garrantzitsuena joko dibertigarria dela!

Xakean jokatzeko duten ikasleek zergatik hobetzen duten eskolako errendimendua

